


K O D E
etikoa ETA
JOKABIDE
a r a u a k



lantegiBatuak

Aurkibidea

Lantegi Batuak Misioa, balioak, xedea,
aplikazio-eremua

4

Printzipio etikoak

6

Jokabide arauak

8

Kanalan

20

**Kode etikoa
eta jokabide
arauak**

Betetzea, iraunaldia,
hedapena,
berrikustea eta
eguneratzea

23

Terminoen Glosario

25

Lantegi Batuak

M I S I O A
b a l i o a k
XEDEA
aplikazio-
EREMUA

LANTEGI BATUAK-EN MISIOA

Desgaitasuna duten pertsoneri, bizkaitarrak direnean eta adimen-desgaitasuna dutenean nagusiki, egokitutako lan aukerak sortzen dituen irabazi asmorik gabeko Erakundea gara, pertsona hauen gehieneko garapena eta bizi-kalitatea lortzeko helburuarekin.

Lehiakorrak eta iraunkorrak diren ekimenak sortu eta kudeatzen ditugu. Desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasuna sustatzen dugu, hauen lanbideratze eta gizarteratzeko ibilbide ezberdinak ahalbidetuta. Bai orientazio eta trebakuntzaz, nahiz okupazio eta lanerako programa berezietan eta normalizatutako lana lortzen laguntzen duen bitartekotzaz arduratzen garelarik

LANTEGI BATUAK-EN BALIOAK

Gure balioak, gure kudeaketa gidatzen duten jokaeraren irizpide eta arau moduan ulertzen ditugunak, oraindik indarrean daude. Misioan esan dugun bezala, irabazirik gabeko sistema batean oinarritzen gara, bere irabaziak Erakundearen helburuetan berriz inbertitzen dituen.

Honetaz gainera, pertsonetara bideratua dagoen eta guztiona den proiektua partekatuta nahi dugu. Partizipatiboa, etikoa, solidarioa, dinamikoa, iraunkorra, eraginkorra den kudeaketan oinarriturik, berrikuntza eta aldaketara egokitzea bilatzen dugu, lan egonkortasuna sustatuta, eta inguruan dugun pertsona, bezero eta komunitatearen poz eta parte-hartzea lortzeko lanean

XEDEA

Lantegi Batuak-eko kultura antolatzailea definitzen duten berezko jokaera jarraibide bilduma bezala ulertzen dira Lantegi Batuak-eko Kode Etikoa eta Jokabide Arauak. Gure balioak esplizitu eta ageriko egiteko balio behar luke, bai-

ta Fundazioaren nortasuna, jarrera-hartze etiko erantzule eta betetze kultura bateratzeko eta indartzeko ere.

APLIKAZIO-EREMUA

Kode Etiko eta Jokabide Arau hauek Lantegi Batuak-eko langile guztiek eta bere Patronatuko kideek erabiltzeko da. Zeharka bada ere, erlazionatzen den interes-talde guztiek ere erabiltzeko da.

Erakundearen barruan ardura bereziak dituzten pertsoneri jokabide zehatzen erreferentzia emateko intentzioarekin, ardura hauek Kodean taldekatu egin dira hurrengo esamoldeen bidez:

Pertsona guztiak:

Erakundearen langile eta bere Patronatuko kideak diren guztiak esan nahi du.

Zeharkako postuetan dauden pertsonak:

Zuzendaritza-taldea eta A, B eta C talde profesionalak osatzen dituzten langileak esan nahi du.

Kudeaketa eta pertsonen ardura duten pertsonak (hemendik aurrera arduradunak):

Zuzendaritza taldea, A talde profesionala eta B talde profesionalean kudeaketa eta pertsonen ardura duten langileak esan nahi du.

Printzipio etikoak

errespetua

duintasuna

ESKUBIDEAK

J u s t i z i a

GIZARTERATZEA

a u t o n o m i a

PRIBATUTA

SUNA

legaltasunaren

zuentasuna

ERRESPETUA

bikaintasunare-

KIN

konpromisoa

G I Z A R T E

ERALDAKETA

integritad

LANTEGI BATUAK-EKO PRINTZIPIO ETIKOAK

Gure sortze-balioetatik abiatuz, Kode Etiko eta Jokabide Arau hauek Fundazioko pertsonen jokaera erantzulea bideratzeko jarraibide eta oinarri etikoak garatzen dituzte. Betetze kultura erreal baten garapena eta ezarpena bermatzen duen esparruan, bere guztizko adierazpena maila etiko, legezko eta araugilean duelarik.

Premisa hau jarraituz, Lantegi Batuak-eko langileen jokaera gidatu behar duten oinarri etikoak definitu dira. Bakoitzaren etika, lanean bikaintasuna eta erantzukizun antolatzailean estandar altuak kon-tuan hartuz.

Errespetua, duintasuna eta eskubideak

Pertsona guztiek dituzte duintasun eta eskubide berak. Pertsonak beraien baitan eta berez baliotsuak dira, eta ondorioz, beraien gaitasun, egoera pertsonal, sozial edo laborala alde batera utzita errespetua merezi dute.

Justizia eta gizarteratzea

Tratu ona eta aukeren berdintasuna sustatzen da eta, ondorioz, zuzena edo zeharkakoa den diskriminazio eza. Pertsona guztien inklusioa sustatzen duten ekintza positiboko neurriak hartzea ere sustatzen da, behar duten lanbideratze eta gizarteratze laguntzetara sarrera ziurtatuz.

Autonomia

Desgaitasuna duten pertsonen autonomia funtzionala eta erabakitzailea modu aktiboan sustatzen da.

Pribatutasuna

Pertsonen eta beraien datu pertsonalen intimitatea eta pribatutasuna errespetatzen da, konfiantza eremu honetara pertsonaren beraren baimenarekin eta

pertsonaren onurarako bakarrik sar daitekeelarik, lege-aginduz hala eskatzen duten egoerak izan ezik.

Zuzentasuna eta legezkoatasunera errespetua

Modu zuzen, erantzule, objektibo eta autonomoan lan egiten dugu. Baliabideen kudeaketa gardena eta eraginkorra modu iraunkorrean garatuta eta honen ezarpenaren betebeharrak legalak errespetatuta.

Bikaintasunarekin konpromisoa

Pertsonen lanbideratze eta gizarteratze-ko garapenean eta industria eta zerbitzu jardueren laguntza prozesuen kudeaketarekin eta maila guztietako etengabeko hobetzearen bikaintasunarekin konpromisoa daukagu.

Gizarte eraldaketa

Gizarte zuzen eta inklusiboagoa sortzeko gizarte eraldaketa sustatzen da eta Erakundea osatzen dituzten pertsona guztien eta honekin harremana duten interes-taldeen partaidetza eta lankidetzat bilatzen dira.

Jokabide arauak

I a g u n t z a

L A N K I D E T Z A

berdintasun

G A R D E N T A S U N

objektibitate

J O K A B I D E E T I K O A

eraginkortasun

Z U Z E N T A S U N

e r r e s p e t u a

L E G E Z K O

B E T E T Z E A

konfidentzialtasun

I N G U R U M E N A

Lantegi Batuak-ek ulertzen du bere xedea sustatzea berariazko gizarte-erantzukizun zehatza duela, laguntza behar handiena duten desgaitasuna duten pertsonentzako ekintza positiboko neurrien garapenaren bitartez. Pertsona hauen autonomian laguntzen duten ingurune inklusiboak sortzeko helburuarekin eta horrela, lanbideratze eta gizarteratze eremuetan beraien desabantailazko egoera arinduta.

Bide honetan Erakundeak historikoki egunerokoan erabiltzeko gida eta eskuliburu ezberdinak garatu ditu. Adibidez: “Lantegi Batuak-en pertsonekin lan egiteko orientabideak”, “Lantegi Batuak-eko desgaitasuna duten pertsonentzako banakako laguntzarako eredia”, “Erabiltzaileen eskubide eta betebeharren gutuna”, hainbat lan-protokolo edo “Informazio sistemen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak, bere Bere osotasunean berezko egiten ditu giza eskubideen eremuan, desgaitasuna duten pertsonen eskubideen eremuan zehazki, dauden beste jokabide oinarriak. Baita lana, ingurugiroa eta ustelkeriari buruz dauden arauak ere, 2010ean printzipioen Munduko Itunera eransteak esanahi izan zuen bezala.

Ekimen guzti hauek Lantegi Batuak-ek hartu duen jarreraren sakontzea dakarte, pertsonak beraien duintasun eta eskubideetan errespetatu eta defendatzen dituen Erakundea izanik. Bere jarduera aurrera daraman gizartearengan eta pertsonengan onura handiena eragiteko helburuarekin.

Praktika honekin jarraituz, Lantegi Batuak-ek Jokabide Arau hauek egin ditu. Arau hauekin lehenago aipatutako balio eta oinarrien betetzea zehaztu nahi ditu. Erakundeaosatzen duten pertsona guztiek beraien lanaren eta funtzioen garapenean, eta erantzukizun etiko

eta legalekin erlazionaturik, arau hauek errespetatu behar dituzte. Horregatik, Jokabide Arauak Lantegi Batuak-en “ondo egite” irizpide bezala onartuak izan diren Printzipio Etikoen inguruan egituratuak daude.

Jokabide Arau hauek ez dute erakundeen konpromiso, lege edo lehenago hartutako akordio bidez beren kabuz dagoeneko existitzen ziren betebeharrak ezartzen. Baina hauek beteak izan daitezten, jokaera zehatz egokien bidez zehazten ditu, gainera zuzenean eragiten dien pertsonen eta orokorrean gizarteari beteko direla ziurtatzen die.

Jokabide Arauak Lantegi Batuak-en jarduera eta zerbitzu guztietan erabiliko dira. Zuzenean Erakundeko pertsona guztiak eta zeharka Erakundearekin erlazioa duten beste edozein pertsona edo erakundeak, beraien jokabide motagatik Lantegi Batuak-engan eragina dutenean (interes-taldeak), lotzen ditu.

Zentzu honetan, Erakundeko pertsona guztiek pertsona batek, bere eskubideen babesaren alorrean, jasan ditzaketen arrisku edo kalteaz jakinarazteko betebeharrak dutela azpimarratu behar da. Kalteak jasan dituen pertsonak legalki jokatzeko autonomia edo gaitasun murriztua duen pertsona bada bereziki.

Azkenik, eta Lantegi Batuak-eko pertsona guztientzako gomendio modura, oinarri etiko eta jokabide arauen betetzea arriskuan jarri dezaketean erabakien hartzeko momentuan hurrengo hartu beharko da kontuan:

- Erabaki hau Lantegi Batuak-ekin, lege-eremu, barneko prozedura eta arauekin eta Kode Etiko honetako printzipio etiko eta jokabide arauekin bat al dator?
- Erakundeko gainontzeko pertsonak, beste interes-talde edo orokorrean jendeak zein iritzi edukiko lukete erabaki honi buruz? Erabakia agerian jarriko balitz eragin aipagarria izango luke?

Galdera hauek era etikoago batean hausnartu eta erabakitzen laguntzen digute. Duda badago, Erakundeko langileek erabaki hauek ezarritako bideen bitartez eztabaidatu beharko dituzte bere Zentru, Zerbitzu, Kudeaketako Unitate (Industrialak edo Zerbitzuak) edo Laguntzarako Arloko zuzendaritzako arduradunekin edo Betetze Unitatearekin



Errespetua, duintasuna eta eskubideak


1. Lantegi Batuak-eko pertsona guztiek beraien jokaera guztietan portaera etikoa izango dute. Pertsonak errespetatu eta duintasunez tratatuta, aniztasuna eta bakoitzaren banakotasuna ulertuta eta era aktiboan edozein abusu, eraso, gutxiespen, baztertze edo irain ez onartuta.

2. Zeharkako lan postuetan dauden pertsonen autonomia edo gaitasun mugatua duten pertsonen eskubideak babestu eta zaintzeko ardura dute. Babesik gabeko edo ahultasun egoeretan pertsona hauek defendatzeko arreta berezia ezarrita eta berdintasun baldintzetan eskubideak gauzatzeko beharrezko laguntza emanda.

3. Zentro edo zerbitzu bakoitzeko arduradunek pertsona bakoitzak lortzen dituen emaitzak aldizka ebaluatzen direla ziurtatuko dute, bai bere lanbideratze eta gizarteratze garapenean eta enplegarritasunaren aldetik, baita bere emaitza pertsonalena ere.

4. Zentro, zerbitzu, kudeaketako unitate edo laguntzarako arlo bakoitzeko arduradunek pertsona guztiei lan aukeren eskaintza emango diete. Beraien gaitasunen balioa nabarmendu eta mugak alde batera utzita.

5. Ardura maila ezberdinetatik, laguntza eta ikastaroen bitartez, gaitasun berrien eskuratzea bultzatuko da. Pertsonen lanbideratze eta gizarteratzeko garapenaren alde egin eta enplegarritasuna eta lan inklusioa hobetuta.



Justizia eta inklusioa

12

6. Zeharkako lan postuetan dauden pertsonen, beraien funtzio ezberdinetan, sexu, ideologia, sinesmen erlijioso, sexu orientazio, desgaitasun edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialen arrazoiengatik edozein diskriminazio jokabide ekidingo dute. Aukeren berdintasunaren irizpidea jarraituz jokatuko dute.

7. Justiziarik eza, tratu txar edo tratu iraingarriko egoerak edo Kode honen ez betetzea dakarren beste edozein ekintzak salatu behar dira.

8. Aukeratze eta kontratatze prozesuetan, desgaitasuna duten pertsonen, adimen desgaitasuna dutenak nagusiki, kontratatzea bultzatuko da. Barneko deialdietan, ekintza positiboko neurrien bitartez eta beti ere balorazio objektiboe-tan oinarrituta pertsona hauen igoserari lehentasuna emango zaio.

9. Zeharkako lan postuetan dauden pertsonen, beraien ardura eta zeregin maila ezberdinetan irizpide objektibo, garden, argi eta ulerkorren arabera jokatuko dute eta aurreiritzi eta favoritismoak gaindituko dituzte, aukeren berdintasuna bermatzeko.

10. Pertsona guztiak banakako planera egokituta eta era pertsonalean tratatuak izango dira, bakoitzaren helburuak kon-tuan edukita eta bere behar zehatzetara egokitutako laguntza eta egokitzapenak ezarrita.

11. Zeharkako postuetan lan egiten du-ten pertsonak laguntza behar gehien duten pertsonen inklusioa bultzatzeko arduradunak dira. Horretarako, Erakun-deak eskaintzen dituen estrategia anitzak erabiliko dituzte (orientazioa, prozesuen sekuentziazioa, prestakuntza ibilbideak, lan postuen egokitzapena, etab.) aurki ditzaketan desabantailak orekatzeko.



Autonomia

12. Zeharkako postuetan lan egiten duten pertsonen pertsonen autonomia beraien jardute eremuan errespetatuko dute, beraien iritzia entzun, balioak errespetatuta eta eragiten dien erabakietan parte-hartzea bultzatuta, gehiegizko babesekeo erlazioak ekidinda.

13. Zeharkako postuetan lan egiten duten pertsonen kasu bakoitzean baimenduak izanik, familiarteko/tutore erreferenteekin erlazio positiboak mantenduko dituzte. Beraien iritzia, iradokizun eta proposamenekiko entzute jarrera erakutsiko dute, beraien familiarteko/tutoretzapekoaren egoerari buruz informatuak edukita eta parte-hartzea bultzatuta, bai laguntzarako plan pertsonalei buruz baita Lantegi Batuak-en funtzionamenduari buruz ere.

14. Zeharkako postuetan lan egiten duten pertsonen kasu bakoitzean baimenduak izanik, familiarteko/tutore erreferentei gizarteratze eta lanbideratze eremuetan sor daitezken laguntzarako

beharrei ekiteko laguntza eta baliabideak emango dizkie. Beti ere ordezkatzeko duten pertsonen autodeterminaziorako gaitasunaren garapen eta onura handiena bilatuko dute.


15. Zeharkako postuetan lan egiten duten pertsonen kasu bakoitzean baimenduak izanik, langileei eta beraien familiarteko/tutore erreferentei beraien egoera pertsonal edo laboralari eragiten dioten ebaluaketa, erabaki, informazio eta esku-hartzei buruzko informazioa emango diete. Informazio hau jasotzen duten pertsonen ulerkerria, osoa, zuzena eta egiazkoa izateko eskubidea dute.

16. Zeharkako postuetan lan egiten duten pertsonen pertsonen beraien banakako laguntzen lanketa eta ebaluaketan parte-hartzea bultzatuko dute. Entzute aktiboa bultzatuko dute eta edukiak jasotzen dituzten pertsonen hizkuntzara egokituko dituzte, beharrezko den komunikaziozko laguntza ebaluatu eta erraztuko duelarik. Iradokizun eta

kexarako prozedurei buruz informazioa emango die baita ere, hauek era eraginkorrean erabiltzeko beharrezkoa den laguntza emanda.

bere buruaren edo taldeko estiman, bere irudian edo ohorean min eman dezaketen jarrera eta jokaerak ekidin eta zuzenduko dira.

17. Pertsona batek gizarte eta lan inguruan adierazten dituen lorpen, gaitasun edo zailtasunak kontuan hartu gabe,



14

Pribatutasuna

18. Erakundea osatzen duten pertsonen pribatutasunera sarrera duten pertsonen intimitate eta konfidentziasun eskubideak errespetatuko dituzte, datu pertsonal, osasuneko, ekonomiko eta orokorrean edozein datu edo isilpeko informazioa batez ere.

19. Jokatzeko autonomia edo gaitasun murriztua duten pertsonen kasuan, beraien banakako laguntza planaren arduradun diren pertsonak arduratuko dira beraien familiarteko edo tutore erreferenteek pertsonarengan aldaketak edo arriskua ekar dezaketen jarduketari buruz erabakitzeke beharrezko diren gai guztiei buruz informatuak izateaz.

20. Erakundeko pertsona guztiek Lantegi Batuak-en beraien jardueraren garapenaren edo bezero eta beste pertsonekin erlazioaren bitartez jakin dezaketen informazio guztiari buruz sekretu profesionala gorde behar dute.

21. Jabetza intelektual eta industrial eta produktu, zerbitzu, informatika-programa, eskuliburu, tresneria, edukiera grafiko edo ikus-entzunezkoa, prozesu, teknologia, ezaguera eta orokorrean Fundazioak edo beste norbaitek garatutako beste lan edo obren erabilerarako eskubidea errespetatzen dela zainduko da.



Zuzentasuna eta legezkotasunera errespetua

22. Pertsona guztiek lotuta dauden legezko betebeharrak betetzeko konpromisoa hartuko dute. Kode honetan jasotako jokabide arauak eta irizpideak eta barneko kudeaketaren prozedura eta arauak beteko dituzte.

23. Lan ingurune osasungarri, irisgarri eta seguru bat bermatuko da. Lanpostuen egokitzapenaren bitartez zereginen egitea erraztuta eta lan-arriskuen prebentzio-araudia betetzeko beharrezko informazio eta heziketa emanda.

24. Lanean hasteko eta barneko mugimenduak egiterakoan, hauen arduradunak diren pertsonak era zintzo, arduratsu eta eraginkorrean jokatuko dute. Horrela Erakundearen barneko baliabideak optimizatu eta beti segurtasuna eta pertsonen osasuna zainduta.

25. Pertsona guztiek Norbera Babesteko Ekipamenduen (NBE) eta ekipamendu babeserako baliabideen arduraduna den erabilera eduki beharko dute. Seinaleak

eta segurtasun oharrak errespetatuko dituzte eta segurtasuneko, osasuneko eta arriskuen aurkako prebentzioko ezaguerak eta praktikak zabalduko dituzte bere lankideen artean.

26. Pertsona guztiek arlo, zerbitzu edo zentroetako arduradunei pertsonen osasun eta segurtasunerako arriskuez dakitena eta Lantegi Batuak-eko edozein langileren eskubideen urratzeari buruz dakiten informazioa ematera behartuta daude.

27. Edozein eroskeria, funtzionario-eroskeria edo beste motako delituren arriskua saihesteko, bakoitzaren objektibitatea edo erabakitze gaitasuna baldintzatuko duen edozein pertsona edo erakunderen opari, atentzio, zerbitzu, eskudiruzko ordainketa edo beste motako mesederik onartzea (edo eskatzea) debekatuta dago.

Promozio opari, gonbidapen eta atentzioak baimentzen diren egoeretan, hauek Erakundearen esku jarriko dira. Kategoria honetatik kanpo uzten dira.

- a) Promozio opariak edo propaganda-rako objektuak.
- b) Gonbidapen arruntak (erabilera soziala eta adeitasunezkoa dutenak).
- c) Gonbidapen arruntak (erabilera soziala eta adeitasunezkoa dutenak).

28. Edozeinen erabaki-hartzean legez kanpora eragiteko intentzioarekin, zuzenean edo zeharka opari, zerbitzu edo mesedeak eskaintzea debekatuta dago. Erakundeak onartzen dituen promozio opari, gonbidapen, arretak izan ezik.

29. Gizarte, erakunde publiko edo pribatuen aurrean Lantegi Batuak-en ospea kaltetu dezaketen eta bere jarduera eta irudiaren aurkako ondorioak ekar ditzaketen jokoerak ekidingo dira, legea hautsi gabe egin badira ere.

30. Lantegi Batuak-en eragiketa eta transakzio guztiak legezkoak izan behar dira, zerga eta gizarte-segurantzaren betebeharren betetzea ziurtatuta. Hauek kontabilitatean erregistratuko dira une egokian eta izakin, segurtasun, argitasun eta zehaztasun irizpideak jarraituta, une bakoitzeko aplikatzen den kontabilitateko araudiaren arabera.

31. Pertsona guztiek kapital-zuriketaren kontrako legeak bete eta soilik legezko iturrietatik datozen funtsak jaso behar dituzte. Zehazki, Lantegi Batuak-eko zeharkako postuetako pertsonak ordainta-forma onartezin edo susmagarriak antzeman eta galarazteko arrazoizko neurriak hartu beharko dituzte. Honi buruzko edozein susmo edo egonezina badute, bere arduradunak informatuko dituzte edo ezarritako bideak erabiliz salatuko dituzte.

32. Lantegi Batuak-ek autoritate eta ordezkari publikoekin bere erlazio guztietan, era begirunetsuan jokatu du eta aplikagarri den legeriak ezartzen duena-

ren arabera, bere sortze-interes legitimoak bultzatu eta babesteko. Ustelkeria eta eroskeria mota guztiei uko egingo die. Zentzu honetan, debekatuta geratzen dira beste norbaiten aldetik, publiko edo pribatua izanik, abantaila lortzeko zuzenean edo zeharka egindako eskaintza guztiak.

33. Erakundearen erabakiak hartzean, interes pertsonalen (edo lotutakoen) eta interes profesionalen arteko egoera gatazkatsuak baldin badaude, erabaki hartzeetan parte-hartzea eta tartean sartzea ekidingo da.

34. Pertsona guztiek instalazioak errespetatzeko beharra dute. Eskura jarritako edo bere jarduerekin erlazionatutako baliabide materialak zuzen erabiliko dituzte.

35. Lantegi Batuak-eko elementuak ez dira erabilera pertsonalerako erabili behar. Ezta espresuki idatziz hartu eta erabiltzeko baimenduak izan ez diren elementuen erabilera eman erea.

36. Bezeroarekiko independentzia babesteko behar da, jokabide profesionala lotura ekonomiko, familiar eta adiskidetasunezkoek eragiten dutela saihestuta. Faborezko tratuak saihestuko dira.

37. Lantegi Batuak-eko pertsona guztiek, harremanetan dagoen interes-taldeen erlazioan, informazioa era egiazko, oso eta ulergarrian transmititu beharko dute. Ez dute inola ere jakinaren gainean egonda informazio oker edo zehaztugaberik emango.

38. Pertsona arduradunek hondakinen bereizketa eta kudeaketa eraginkorren inguruneari buruzko lege-betekizunak betetzeko ezarritako arauak errespetatuko dituzte. Ingurumen-inpaktua txikiagotzeko eta eraginkortasun energetikoa hobetzeko, pertsona guztiek barneko baliabideen arrazoizko erabileran ezarritako arauak errespetatuko dituzte baita ere.

Bikaintasunarekiko konpromisoa



39. Lantegi Batuak-eko pertsona guztiak bezeroen aurrean egindako beraien jardueretan profesionaltasunarekin aritu behar dira. Bereziki:

- Erakundeak bezeroekiko erlazioei dago-kienez ezarritako barneko prozedura eta arauak behatu behar dituzte;

- Ez dute beraien datuen asmo txarreko erabilera egin behar. Datu hauek bil-tzen diren helburuetarako bakarrik eta Erakundeak onartutako sarbide maila-rekin ados erabiliko dira, beste batzuei datu hauek salmenta eta ematea espresuki debekatuta dago;

- Bezeroei erakundeak eskaintzen dituen ondasun eta zerbitzuei buruzko egiazko eta egokitutako informazioa eman beharko diete;

- Bere produktu eta zerbitzuen salmenta edo merkaturatzean ez dira adierazpen faltsu ezta engainagarririk egin behars.

40. Lantegi Batuak-eko zeharkako postuetako pertsonak bezeroen datuak egiaztatu beharko dituzte, errealak direla egiaztatzeke eta bezero-zerrendetan existitzen ez diren identitateak sortzeko edozein saiakera saihesteko, legezko baliabide egokien ikustearen bitartez.

41. Lantegi Batuak-eko material nahiz zerbitzuetako erosketetarako erantzukizun komertziala duten pertsonak funtsezko printzipioak eta Kode honen arauak errespetatzen dituzten hornitzaileekin erlazionatuko dira, bere erreferentziazko ordenamendu juridiko, sozial, ekonomiko eta kulturala kontuan hartuta.

42. Hornitzaileen aukeratze eta esleipenen arduradun diren pertsonak eskakizun administratibo eta erakundearen barneko irizpideek ezarritako prozedurak jarraituko dituzte, era zuzen eta inpartzialean. Indarrean dagoen araudiaren arabera aplikagarri diren gardentasun

publikoko eskakizunak ere jarraituko dituzte.

43. Pertsona arduradunek hornitzaileei bakoitzaren jarduera ekonomikoko eremuko legezko xedapenak errespetatzea eskatuko diete. Enpresak eskaintzen dituen zerbitzuei buruz eta batez ere, pertsona juridikoen erantzukizun penalarekin erlazionatutako delituei buruz.

44. Lantegi Batuak-ek, kasu bakoitzeko pertsona arduradunen bidez, kontrola eta kudeatutako baliabide publikoen (laguntzak, hobariak eta diru-laguntzak) gainbegiratzea bermatuko ditu. Eskatutako baldintza eta frogak beteta eta egingdako lana baliozkotzat ematen duten auditoretza prozesuak eginda.

45. Produktu eta ematen diren zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko helburuarekin, zeharkako lan postuetan lankidetzaz, malgutasun, eraginkortasun, talde-lan eta erantzukizuneko (batez ere bezeroekiko) jarrera iraunkorra mantenduko da, berrikuntzaranzko joera iraunkorra mantentzen ahaleginduta.

46. Lantegi Batuak-eko parte diren pertsona guztiak lan bikainaren oinarri bezala bere kompetentzia, ezaguerak, trebetasunak eta ahalmenak etengabe hobetzen saiatuko dira.



Gizarte eraldaketa

47. Erakundeko arduradunek sektore publiko eta pribatuarekin lankidetzatza instituzionaleko prozesuak garatuko dituzte. Desgaitasuna duten pertsonen bazterte eta diskriminazio soziala saihesteko, hauen inklusioa bultzatzen duten erakunde guztiekin elkarlana era aktiboan bultzatuta.

48. Erakundeko arduradunek bere jardura eta estrategiak ahulen diren pertsonen beharren arabera bideratuko dituzte. Aldaketarako eragile arituta, eta inoiz instituzio, politiko, ekonomiko edo beste edozein naturako jarreraren arabera lehentasunarekin.

49. Arlo, unitate, zentro eta zerbitzuen arduradunak Lantegi Batuak-ekin lankidetzatza duten eragile ezberdinen sentsibilizazioarekin konpromisoa hartzen dute, desgaitasuna duten pertsonen ahalmen eta gaitasunen garrantzia azpimarratuta.

50. Lantegi Batuak-eko zeharkako postuetako pertsonek bakoitza bere aukera eta eragiteko gaitasun neurrian desgaitasuna duten pertsonen eskubideen aldeko gizartearen sentsibilizazioarekin konpromisoa hartzen dute. Helburu hauek jarraitzen dituzten foru eta sareetan parte hartuta.

51. Lantegi Batuak-ek Ingurumenaren babesa eta errespetuarekin konpromisoa hartzen du, bere jardueren ondorio diren efektuen eragina txikiagotzeko eta ingurumenaren jasangarritasuna hobetzen laguntzeko.

Kanalan

GERTAKARIEN
komunikazio
KANALA

20

KANALAN

Printzipio eta jokabide arau hauen erantzukizuna eta betetzea orokorrean bete beharrezkoak dira eta ez dute salbuespenik begiesten.

Zuzendaritza funtzioetan diharduten edo Erakundeko erantzukizun postua duten pertsona guztiek, dokumentu honen betetzean adibide izateko eta estandar, praktika eta bertan ezartzen diren portaera etikoak urratzea ez baimentzeko betebeharra dute.

Printzipio etiko eta jokabide arauen aplikazioa bultzatzeko eta dilema etikoen erabakia egituratzeko, Lantegi Batuak-ek gertakarien komunikazio kanal bat jartzen du Erakundearekin erlazionatzen diren pertsona guztien eskura, KANALAN izena duena.

KANALAN-en bidez, era konfidentzian eta errepresalien eza bermatuz, Kode honetan jasotako printzipio etiko eta jokabide arauen edozein haustea jakinarazi eta nahi diren kontsultak egin ahal izango dira.

Zentzu honetan, Lantegi Batuak-ek langile guztiak lege edo Kode honen printzipio arauak haustea ekartzen duen edozein jokaerari buruz informatzeko betebeharra jarraitzaera premiatzen ditu. Gertakari guztiak komunikatzeko, ohiko kanalak erabili daitezke (monitorea, zentruko arduraduna, pertsonen teknikaria, bulego zentraletako langileak) edota KANALAN bitartez ere.

Arauen Betetze Batzordeak, Betetze Unitatearen bitartez, fede onez eta erantzukizunarekin egindako edozein mezu sakontasunean ikertuko du.

Ez dira hurrengo mezuak onartuko: mezua bidalita duen pertsona ez bada ondo identifikatuta agertzen, informazio osatugabea ematen badu edo mezuan deskribatzen den jokaera ez bada, hala probatu daitekeelarik, Kode honen edo

indarrean dagoen legearen kontra.

Gertakarien mezuak idazteko bide elektronikoari emango zaio lehentasuna, hurrengo mekanismoen bidez:

a) Hurrengo helbidera mezu elektronikoa bidalita: KANALAN@lantegi.com.

b) Lantegi Batuak-eko Intralan-ean, KANALAN atalaren barruan agertzen den formularioa beteta.

c) 946 62 00 42 telefono zenbakira deituta.

Gainera, gertakariak posta bidez bidali ahal izango dira, Betetze Unitatera zuzenduta eta hurrengo helbidera: Txorierra Etorbidea, 12, 48180 Loiu (Bizkaia).

Gainera, gertakariak posta bidez bidali ahal izango dira, Betetze Unitatera zuzenduta eta hurrengo helbidera: Txorierra Etorbidea, 12, 48180 Loiu (Bizkaia).

Mezua jaso eta baliozkotzat eman ahal izateko hurrengo informazioa jaso behar da:

- Bidaltzailearen identitatea, izen-abizenak eta NAN zenbakiarekin.
- Gertakariaren ekintzen deskribapen laburra.
- Gertakarian parte-hartu duten pertsonak eta arlo/unitate/zentro/zerbitzua.
- Bidaltzaileak gertakaria ezagutzearen arrazoia.
- Aztertu beharreko ekintzak egiaztatuko dituzten edozein proba edo daturen erreferentzia.

22

KANALAN-en bidez ematen diren datuak, Lantegi Batuak-en izaera pertsonaleko datu fitxategi batean sartuko dira. Lantegi Batuak-ek beharrezko izaera tekniko eta antolatzailea duten neurriak egokituko ditu. Horrela, datuen segurtasuna bermatu eta beraien aldaketa, galtze, baimendu gabeko tratamendu edo sarrera ekiditeko, izaera pertsonaleko datuen babesaren gaineko legerian jartzen duena betez.



Kode etikoa eta jokabide arauak

betetzea

IRAUNALDIA

hedapena

berrikustea

EGUNERATZEA

BETETZEA

Lantegi Batuak-en Kode Etiko eta Jokabide Arauak eta KANALAN bere gertakarien komunikaziorako kanala, Erakundearen Betetze Programaren parte dira.

Zentzu honetan, Betetze Unitatea, Arauen Betetze Batzordearen zuzendaritza eta gainbegiratzearen pean, Lantegi Batuak-en Kode Etiko eta Jokabide Arauak betetze eta hedatzeko ardura izango da. Baita KANALAN-en kudeaketaren ardura ere.

Kodea betetze ez delako mezurik egotekotan, indarrean dagoen hitzarmen kolektiboarekin bat datozen diziplinazko zigorrak ekar ditzaketen ikerketak egingo dira, beste ildo bateko erantzukizunen pean erorita ere, erantzukizun hauetan kalterik egin gabe.

Prozedurak bere atal guztietan konfidentzialtasuna eta errepresalien eza ziurtatzen du. Halaber, prozedura guztietan sartuta dauden pertsonen intimitate, defentsa eta errugabetasun-presuntziarako eskubideak bermatuko dira.

IRAUNALDIA

Lantegi Batuak-en Kode Etiko eta Jokabide Arauak Lantegi Batuak-en Patronatuak onartzen duen egunean sartuko da indarrean.

HEDAPENA, BERRIKUSTEA ETA EGUNERATZEA

Lantegi Batuak-en Kode Etiko eta Jokabide Arauak Lantegi Batuak-eko langile guztiei banatuko zaizkie, horretarako ikastaro zehatzak egingo dira hauen ulermen zuzena eta betetze eraginkorra bermatzeko.

Halaber, Kodea intranetean (intraLan) eta Lantegi Batuak-en web-orrian (www.lantegi.com) argitaratuko da.

Arauen Betetze Batzordea, Kode hau al-dizka ikuskatzeko ardura izango da, bidalitako gertakari eta kontsultak kon-tuan hartuta. Beharrezko uste dituen aldaketa eta egokitzapenak Kontseilu Betearazleari proposatuko dizkio, Kontseiluak Patronalari bidaltzeko. Patronalari dagokio Kodea aldatzeko proposamenak onartzea.

Jokatzeko autonomia edo gaitasun murriztua duten pertsonak: tutoretza erreferentea duten pertsonak eta mugak dituzten pertsonak. Laguntza behar dute eskubideak eta betebeharrak gauzatzerakoan.

Familiarteko/tutore erreferentea: desgaitasuna eta jokatzeko autonomia eta gaitasun murriztua duten pertsonentzat laguntza, ordezkari eta solaskide lana egiten duten pertsona edo tutoretza erakundeak.

Banakako laguntza plana: beraien bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin, desgaitasuna duten pertsonentzat eskaintzen den laguntza multzoa. Laguntzat hartzen dira adimen desgaitasuna, garuneko erasana eta gaixotasun mentala duten pertsonen zuzendutako jardute, programa eta baliabideak.

Betetze programa: erakundearen beharren arabera, arrisku penalen kudeaketa eta prebentzioa pertsona juridiko batengan ezartzen den kudeaketa sistema.

Arauen Betetze Batzordea: Lantegi Batuak-eko kontrolerako organoa, Betetze Programaren ezartzearen arduraduna da. Programa honen ezarpen zuzena ikuskatzeko arduraduna da baita ere, eta bereziki Kode etiko eta Jokaera Arauena.

Betetze Unitatea: unidad Arauen Betetze Batzordearen erabakien gauzatzea zaintzeaz arduratzen den unitatea.

Interes-taldea: Enpresa bateko ez diren pertsona edo erakundeak, baina enpresa horretan interes zuzena edo zeharkakoa dutenak, bai enpresan eragina izan dezaketelako edo enpresak beraiengan eragina izan dezakeelako. Barneko interes- taldeak erakundearen parte diren pertsonak dira. Kanpoko interes-taldeak komunitateko edo gizarteko jabe (akziodunak), inbertitzaileak, bezero, hornitzaile, aliatu, erakunde publiko eta ordezkariak dira.

Eroskeria: eroskeriak norbaitek era 'desegokian' (askotan bidegabeko onura pertsonala lortzeko emaitzarekin) jardutea lortzeko helburuarekin eskudirutan dirua eman edo jasotzea ekartzen du. Baliozko transakziorik egitea ez da beharrezkoa; eskaintza edo hitza ematea soilik nahikoa da legea hausteko.

Diskriminazioa: Kode honen arabera diskriminaziotzat hartzen da sexu, ideologia, sinesmen erlijioso, sexu orientazio, desgaitasun edo beste edozein egoera pertsonal edo sozialen arrazoiengatik onuragarria ez den tratua.

Ustelkeria: okerreko abantaila pertsonala edo enpresakoa, bai eremu publiko edo pribatuan, lortzeko botere edo maila baten gehiegizko erabilera dakarren ekintza.

Jabetza intelektual: egile eta beste titularren (artista, ekoizle, irratigintzako erakundeak) sorkuntzetatik atera diren obra eta egiteei dagozkien eskubide multzoa. Barnean sartzen dira marka, logotipo, egile eskubideak, sekretu komertzialak, ideiak, asmakizunak, kontzeptuak, lan produktuak, teknologiak, ezaguera teknikoak eta patenteak.

Jabetza industrial: produktu, prozedura edo diseinu berriak adierazten dituzten jarduera berritzaileak babesten dituen eta merkataritza-jarduerak, merkatuan beraiek bakarrik eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuen identifikazioaren bitartez, babesten dituen eta beste inorena ez den eskubide multzoa.

Funtzionario-eroskeria: agintari, funtzionario publiko edo funtzio publikoan jardutean parte-hartzen duen pertsona bati dohaina edo beste edozein motako ordainketa eskaini edo ematea.

Kapitalen zuritzea: delituzko jatorria duten ondasun edo aktiboei legezkotasun antza ematera zuzenduta dauden mekanismo edo prozedura multzoa.